

Colette Villepreux

Iñaki Bernaola

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1992



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpan*



Colette Villepreux

Iñaki Bernaola

Julene Azpeitia 5. ipuin lehiaketa

1992

1. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Iñaki Bernaola (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

-|-

"Komunismoak izandako akatsik nabarmenena, artifizialki sortu zituen egituretan zetzan. Gainegiturak esan genezake zehatzago, terminologia marxista bera erabiliz gero. Ekonomia, gizartea, pentsamendua... era naturalean garatzen utzi beharrean, enkortsetatu egin zituen, berezko ez zitzaizkien arau, kode, molde, debeku eta anputazioak ezarriz. Erdi Aroko Inkisiziora itzuli behar izango genuke, Mendebalder ondare historikoak osaturiko enbor erraldoiaren bilakaeran komunismoaren pareko fenomenorik topatu nahi izatekotan..."

Agian Erdi Aroan apenaz ez zen inkisiziorik izan. Agian inoiz ez komunismoa bereziki mendebalderarra. Agian Mendebaldeak berak ez du behin ere enborrik osatu, zutik erdipurdika soilik irauten duen belar-meta baizik. Agian historia bukatzeaz dago, eta aldizkari sasi-intelektual eta handi-ustel batetik harturiko goiko artikulu petral hori laster izango da ahaztua, inkisizioa, jaungoikoa, komunismoa eta beste hainbat kontzeptu historiko handirekin suertatzen ari den era berean. Agian norberak bizi izandako maitasuna izango da gure historiatik gogoratuko dugun ia gauza bakarra, eta maitasunarekiko bere loturaren arabera artxibatuko da gizadiaren memorian gainerako oro. Horregatik, zahartzarora arrapaladaka hurbiltzen ari den gizon bakarti honek komunismoa errebindikatu nahi du, noizbait maitasuna bete-betean bizitzeko kapaz izan zela frogatzeko besterik ez balitz ere.

Bazen munduan garai bat, non komunistak ezbaierik gabeko komunistak ziren, eta horregatik komunista gisa jantzi beti: txukun, klasiko, larderiatsu baina ez dotoreziaz erabat gabetuak. Onartu egin behar da baita haietakoren batek tokia uzten ziola aldian behineko sofistikazioari, baina horiek komunista intelektualak ziren, eta intelektualak, komunistak zein ez, beti izan dira berezi samarrak janzkera kontuan. Garai hartan, beraz, erraza baino errazagoa zen komunistak identifikatzea, komunista gisa jantzi, mintzo, barre eta... eta negar ez, komunistek ez baitzuten inoiz negarrik egiten, ezta ere itaunketa-gelan usu erabiltzen zen torturaren zigorpean. Eta garai hartan, egia esan, komunistak itaunketa-gelan ohizko bisitariak ziren, Mendebalde zein Hegoalde, Ekialde zein Iparraldean.

Ez ziren halaber, komunistak errez identifikatzeko bakarrak: apaizak, putak, militarrek, burgesak, zuriak eta beltzak nahastezin suertatzen ziren beren itxura propioetan, berez nahastezinak zirelako. Ezinezkoa zen topatzea, gaur egun bezalaxe, puta beltza den militar zuria, janzkera proletarioko abade burges ustela, edo erregearen senide bihurturiko komunista aristokrata.

Garai hartan, bukatzeko, jende guztia zen nahastezina. Horregatik, Celetná kaleko arkupean bi gizon eta neska bat eztabaida bizian ikustean, ez nuen zalantzarik izan bi txakur eta bizitza erreza zeraman pospolin bat identifikatzeko, munduko txakur guztiei, komunistak zein ez, kirats berbera baitarie, eta zer esanik ez, jakina, Pariseko lurrin garestiez inguratutako neskei dagokiela. Inguruan VB letren ikur beldurgarria erakusten zuen kotxeren bila mugitu ziren nire begiak ia inkontzienteki. Hala ere, izkina batean aparkaturiko Tatra beltzak ez zuen ezbairako tokirik uzten, nahiz eta mendebaldar europarrentzako esangura kontraesankorra adierazten duten VB letrak alboetan margoturik eraman ez.

Ezin esan daiteke inolaz ere gizalegez jokatu ez nuenik. Neska polizien atzaparretatik askatzea lortu nuen alde zurratik baldintzarik jarri gabe. Gero, jakina, arraz zilegi da zerbitzuengatik ordainketa eskatzea.

Paperak galduta omen zituen panpinak, eta Txekoslovakia komunistan paperik gabe ez zinen inor. Mendebalde kapitalistan, ordea, diruaren bidez atera zitezkeen osorik istilu txar batetik, baina hor, zorionez edo tamalez, diruaren balioa ez zen hain absolutua. Hala, poliziei hurbildu nintzaien eta Frantziako Alderdi Komunistako karneta atera, bai eta Txekoslovakiako Prentsa Ministerioak nire izenean luzatutako gonbidapen-agiria, "Revue Internationale" deituriko publikazioan kazetari gisa aritzeko. Frantsesez zuzendu nintzaion neskari —txekiarrez ez zuen tutik ere ulertzen— eta bion artean lauzpabost esaldi gurutzatu ondoren, ni neu azaldu nintzen neskaren berme polizien aurrean, Frantziako "Sureté" delakoarekin ustez zituen arazo politikoak medio desegoki samarra baitzen afera enbaxadaren esku uztea.

Ordu erdi luzez eztabaidatu ondoren, eta nire eskuak hirugarren aldiz jada txakurren gabardinetako poltsikoan billete bat irristatua zuela, amore eman zuten. Hori bai, eta neskaren minigonari begiratu (Ingalaterran asmatu berriak ziren orduan) nire "kamaradak" hobe zuela beste janzkera mota bat erabiltzea gomendatu zidaten, bestela hurrengoan ez lukete eta hain "eskuzabal" jokatuko. Tatra beltzera igo eta berehala desagertu ziren kale artean, neska libre utziz.

—Ez dakit zelan ordain diezazukedan nire alde egindako guztia.

Horrelaxe hasten dira beti, zintzo eta eskerroneko, baina azkenean ez dizute sekulan ordaintzen apur bat estutzen badituzu. Estutu bai, baina zakarkeriarik erabili gabe.

—Egia esan, ez duzu niri zertan pagatu behar ezer. Tragorik hartu nahi?

—Baina taberna guztiak daude itxita, polizi madarikatu horiekin izandako katramilaz oso berandu egin da eta.

—Nire etxera joan gintezke, axola ez bazaizu.

—Non bizi zara?

—Ohe handia duen gela txiki batean, hemendik ez oso urrun. Gau ilunaren erdian ilundu egin zen neskaren begitartea.

—Uste dut prezio handiegia eskatzen ari zarela.

—Mesedea ere handia izan duzu, txakur horiek ez baitute milikeriatan ibiltzeko ohiturarik.

—Uste dut bakarrik konpon naitekeela hemendik aurrera. Eskerrik asko, halere, denagatik. Hau esan eta musu bat eman zidan masailean, munduko kontu zahar guztiak musu soil batez garbi litezkeen bezalaxe. Neu, haatik, ez nengoen prest geure esperientzia komunari bukaera hain laster emateko.

—Utzi behintzat zure hoteleko ateraino laguntzen.

Hori bai onartu zidan, agian lehenengo unean zergatik ondo jakin gabe. Wenzeslao plazaren inguruan zegoen hotela, atariko argia oraindik piztuta. Nolanahi ere, ez zeraman poxpolinak bizimodu txarra, ez horixe.

—Ez nekien, zinez, Ambassador hotelean atzerritar ordezkari ofizialik ostatu hartuta zegoenik egunotan.

—Zerbaitegatik egon behar zen akaso?

—Inguruan zeu bezalako neska ugari ikusten delako orduan.

—Aizu: arte-ikerlaria naiz, eta ez pentsatzen ari zarena.

—Arte-ikerlari asko izaten dira beraien artean

—Arte-ikerlaria soilik nire kasuan.

—Zorionsua zara benetan, arteaz soilik bizi ahal izateagatik.

—Gabon.

—Gabon.

Galdutzat emana nuen partida jada, eta hara non galdera klabea otu zitzaidan tupustean.

—Ba al duzu dirurik?

—Zergatik, bada?

—Nola dokumentazioa galduta duzun, agian dirua ere bai.

—Eta zuri zer axola dirurik dudana ala ez?

Hoteleko izkinan geratu nintzen zain. Ez zuen bost pausu eman eta berriro bueltatu nigana.

—Eta dirurik ez banu?

—Orduan, panpoxa, egun batzuk beharko ditugu zure arazo guztiak konpontzeko.

-II-

Ohe handia apenas besterik ez duen apartamentu txikiak, ezer gutxi eskain dezake bizitzaren gozamenerako, oheari nolabait lotuta ez dagoenik. Nireak, ordea, bazuen beste zerbaite erakargarria: lehenengo eguzki-izpien eraginez zinkeko teilatuak nola argitzen hasten diren bertako leihotik ikusi ahal izatea. Nolanahi ere, goizean modu desberdin askotan ikus daitezke gauzak,

gauean ohekide izan duzun pertsonaren arabera. Eta egun hartan Parisetik zuzen etorritako arte-ikerlaria nuen, Pariseko lurrinez inguratuta baina diruz erabat hustuta. Aski, nire aburuz, alboko teilatuetako kolore ainubeak distiraz gainezka sumatzeko. Zutik nengoen gela erdian biluzik, zakila eguzkiari zuzendua eta ipurdia oraindik lozorro zirudien neska poxpolinari.

—Ez dizute sekulan aipatu Picassoren gorpuzkera osoa duzula?

—Benetan horrela al da?

—Gehiago esango dizut: Picasso berarekin larrutan egon naizela imajinatzen igaro dut gaua.

—Eta zein gorpuzkera-mota da hori, bada?

—Zelan esango nizuke... buru handia, lepo eta bular zabal eta oparoak, beso eta hankak gihartsuak eta pixka bat oker, zakila handia, oin handiak, baina figura osoak, halere txiki samar eginez.

—Picassok ere handia al du?

—Ez izan kaikua, ongi dakizu eta zer esan nahi dudan. Picasso, gainera, zaharregia da niretzat.

Arte-ikerlaria zen nire poxpolina, lehen esan dudanez, eta doktorego-tesia burutzeko asmotan mende honetako pintura europarra ikertzera etorria zen Txekoslovakiara, oraindik zein gairi buruz erabaki gabe baina. Arraro samar egingo zaizue, agian, mota horretako ikerketak burutzeko pausuak Txekoslovakiara bideratu nahi izatea. Arte kontuan zuen prestakuntza eskasa agerian utzi duzue kasu horretan. Jakin ezazue, ergel halakook, Pragako Narodni Galerian garai eta estilo horietako koadroen bilduma paregabea dagoela, edozein ikerlariren gozamenerako. Pintura garaikideari buruzko zuen ezagupena zabaltzea komeniko zaizue segur aski, eta hogeit eta gutxi urteko neska dotore baten konpainian baldin bada, askoz hobeto. Halaxe egin nuen nik, eta horri esker gaur egun oso ondo nago jantzita, arlo horretan behintzat. Aitzitik, arropa eta gainerako kontuetan ere ondo jantzeko beste bi gauza dira ezinbesteko: lehenengoa, Picassoren gorpuzkeraren orde, Gregory Peck edo Capucinerena, segun eta gizon ala emakume zareten, eta bigarrena, zuen aita Bokaleko portu-zamaketeria izan beharrean, Kleber Etorbideko burges handinahia. Colettek ongi asko betetzen zituen bi baldintzak, ni baino hiru zentimetro altuago eta hogeita hamar kilo argalago baitzen. Eta ez pentsa, norbere barrabilak ikusi ahal izateko ispilurik behar duten horietakoa naizenik, ez horixe, baizik eta urte luzeetan zehar aitaren ofizio berari egon nintzela lotuta. Ikasi eta lan, lan eta ikasi, azkenean Alderdiak beka bat eman zidan kazetaritza-ikasketak burutzeko, eta karrera bukatu bezain laster hona bidali ninduten, nigan jarritako esperantzak handiak ziren eta. Komunismoari zor diot, beraz, ia nire izate osoa, eta nola ez, baita nire aitari ere, faxismoaren aurkako gerla bukatu bezain pronto Frantziara ihes egindako komunista espainiarra, Zuberoako neskame batekin ezkonberria zelarik Auschwitzeko zelaian giltzaperatua, eta bere bizitza osoan puska bateko militante eta borrokalaria. Aita eta Alderdia, Alderdia eta Aita, gauza bera agian ez baina bata bestetik bereizteko nahiko zaila askotan.

Colette nire kuttunak, ordea, den-dena izan zuen bizitzan desberdin: Sorbonako ikasle, ona ala txarra ez dio axola, beti aitatzoren diruari esker kapritxo guztiak aserik, Txekoslovakiarako "ikerketa-bidaia" barne. Baina dirua

xahututa edota ezustean galduta, norberez baliatu behar, eta horixe bera egiten ari zen poxpolina, diru-igorki berririk ez zetorren bitartean gutxienez. Bera irrikitan diruaren zain, eta neu burokrazia komunista ohi baino are geldoago izan zedila desiratzen, nahiz eta berez oso azkarra sekulan ez zen izan. Halakoxea zen gure egoera, edo halaxe ikusten nuen behintzat lehenengo egunetan.

—Posiblea al duzu igande honetan museora nirekin joatea? Bertako arduradunekin entrebistatzeko interpretea beharko dut, eta bidenabar horrela zeure senideari bota diezaiokezu begirada bat.

—Senide? Eta zein postu betetzen du hor, zaindari, zuzendari, garbitzaile?

—Zure senideak ez du posturik betetzen. Badago egon, eta kito.

—Arranopola! Eta nola lortu duzu berarekin harremanetan jartzea, eta zer kontatu dizu nitaz?

—Gezurra dirudi batzuetan zein inozo izan zaitezkeen, benetan! Zure senidea koadro bat da, Goyak Tomás de Lardizabali, Mexikora alde egindako ilustratu espainiarra berori, eginiko erretratua. Zuri zuzenduriko korrespondentziari esker jakin dut zure izen osoa.

—Eta zer iruditu zaizu?

—Zure senidea?

—Ez, nire izena.

—Jacques Moreno Lardizabal... ez dakit. Desorekatu samarra. Agian ponpoxoago geratuko litzaizuke lehenengo deituraren ordeaz iniziala soilik erabiliz gero. M. Lardizabal. Zer deritzozu?

—Izen-abizenen "estetika"? Burgesiari dagozkion kezkek dituzu horiek. Edo basko-nazionalistenak, azken finean ere burgesak.

—Komunista-proletarioei, ordea, berdin zaizue izen polita ala itsusiaren jabe izatea, beraz.

—Komunistok lotuago sentitzen gara militanteon artean erabiltzen ditugun ezizenei, gerla-izenei alegia.

—A, zein interesgarria! eta zein da zurea?

—Hori ezin dizut esan.

—Ez izan ergela!

—Bon, egia esan, hemen ez dut gerla-izenen beharrik, nire benetakoaz ezagutzen naute eta. Baina Gaztedi Komunistaren partaide nintzela, Gerard deitzen zidaten.

Gerard, Gerard... besoekin nire lepoa inguratuz behin eta berriz xuxurlatu zidan belarrira, egundoko oilo-larrua sortaraziz. Ez dago munduan gizona den inor, holako egoera batean geldi iraun dezakeenik. Hala, Coletteren ipurmasaila osoa inguratu ahal zuen nire esku bakar batek, eta sobera nuen haren indar soila gogorki niganatzeko, izter artean zuen epeltasun zoragarria nire sexuari tinko atxikia, eta desioa nire onetik ateratzeko moduan ernea. Titiburuen gogortasuna (titiburuez aparte apenas ez zen ezer nabarmentzen haren bular aldean) haren ezpainen egarria asetzeko egiten zidan gonbitea, eta besterik gabe neure eginbeharrari ekiten nion, lehendabizikoz ahoa

neurearekin laztanduz, hozkatuz, xurgatuz, estutuz, atximurtuz, besarkatuz, itoaz... eta lepotik beherako fereka luze eta sakon baten ondoren gona azpian galtzen zen libre nuen beste eskua, atzamar luzea kuleroaren beheko ertzarekin etengabeko burrukan hasteko berehala. Nahita edo oharkabean, gorantza tolesten zituen izterrak nire gerriaren inguruan, atzamarrari alu-arrailarako bidea erraztatuz. Borborka zerion orduan barneko eme-hezetasuna, gela osoa usainez, zaporez, xuxurlaz, hasperenez eta gozamenenez ere beteaz. Nahikoa zuen, bere arintasunean, beso batez nire lepoa inguratzea bere pisu osoari eusteko, eta beste eskua, bitartean, maisuki mugitzen zen nire gerritik behera, praktako botoiak banan-banan askatu eta zakil tentetua agerian uzteko.

Zangoekin zuen trebetasun paregabeari esker, bizpahiru mugimendu zaluren ondoren kuleroa lurrean zuen. Eta orduan bai, neuri emana erabat, zakila iltzatzen nion gupidagabeki, plazer neurrigabearen irrikitan egoten denean gupidaren balio edo interesa hutsaren hurrengoa baita. Eta sabeleko giharren bultzadaz etengabe kulunkatzen nuen gora eta behera, ehun kilotako zakuak altxatzeko ohituta dagoenak berrogeita hamar apenas pisatzen duen panpinatxoa jostailu arina baitu, nolana mugi dezakeena. Batzuetan bizkorrago, geldoago besteetan plazerraren lehertzea atzeratu nahian. Une batean izterrak ia deskalabruaren punturaino zabalarazi, zakilari sakontasun handienaren oparia eginez, eta hurrengoan gogor estutu, haren pisuari eusten zion nire eskuaren atzamar luzea ipurtzulotik barrenera indar guztiez bidea irekitzen. Neke izpirik gabe iraun nezakeen gisa horretan minutuak, orduak agian, baina nahiko eta lar zuen bere irekidura magikoa inguratzen zuten giharrez astindurik txikiena ematea, zamaketari lanean hamar urtetan zehar bildutako indarra hamar segundotan hustu eta ahuldurik uzteko. Eta azkenean, lurrean neke-neke eginda, Coletteren musu eztiitsuak jasotzen nituen, Picassoren gorpuzkera baldarra duen astazakil honi eskerrak eman nahi balizko bezalaxe.

Sexuz aparte tamainaz, gorpuzkeraz, jatorriz eta ideologiaz zeharo desberdinak izan arren, ez zen ohea elkarrekin konpartitzen genuen gauza bakarra. Idazmakina bat soilik ez zegoen apartamentuan eta biok erabiltzeko geunden behartuta, bakoitza bere zeregin propioan. Eta idazmakina izen genuen, geure harremanak iraun zuen denbora osoan zehar suertaturiko eztabaida bakarren aitzaki eta bitarteko: Skoda autobusen usinako langileek ustez lorturiko abantaileri buruzko artikulu bat idazten eman nuen ia gau osoa. Hurrengo arratsaldean Colettek izan zuen idazmakina okupatuta, museoko entrebistak transkribatze-lanean. Neurea aurrera ateratzeko ezindua beraz, eta gainera bezperan idatzitako ez zen inondik ere agertzen.

—Kasualitatez ikusi ote dituzu atzo eskuartean nituen orriak?

—Nahiko lan daukat neure tesiarekin zure artikulu proletarioez ere arduratzeko. Ez al duzu uste?

—Nire artikulu proletarioei esker zeu bezalako ume burges mukizu batek egunero jaten du. Ez al zara ohartu?

Horrelaxe hasi zen eztabaida, eta ez da zaila asmatzen zelan bukatu zen. Negar-zotinka, maleta biltzen hasi eta joateko itxura egin zuen. Azkenean, geratzeko eskatu nion mesedez. Gau hartan, lehenengo aldiz denbora askoan, ez genuen amodioa egin, eta elkarri sorbalda emanez, bakoitza bere ohe-bazterrean kukubilkatua, mota guztietako pentsamenduetan murgildu ginen

luzaro, eta komunistok sekulan negar egiten ez bagenuen ere, hurrengo goizean burukoa bi muturretatik agertu zen bustia.

Ez zen pasadizo hartatik oraindik astebete pasa eta hara non egun batean nire lepora egin zuen jauzi etxera heldu orduko, aurpegia musuez betetzen zidan bitartean:

—Oporretara goaz, laztana, nahi duzunean eta dena dohainik.

—Zer ba, mundu osoa komunista bihurtu da egun batetik bestera ala?

—Askoz errazagoa, astakilo hori, aitaren dirua heldu zait. Hiru mila libera!!

Diru horrekin posible izango zen garai hartan munduko bira osoa egitea, ondo administratuz gero. Nolanahi ere, eta burgesen lepoan bizitzeaz lotsaturik edo, Tatra mendietara abiatu ginen astebetean, Txekoslovakiaren ekialdean eta agian bertako eskualderik ikusgarriena. Susmorik ez piztearren edo, Monsieur eta Madame François Dumolleten izenpean inskribatu ginen hotelean, eta goizero, kanpora ateratzen ginen bakoitzean "Bon voyage, Monsieru Dumollet" esaten zidan harrerako emakumeak bere doinu frantses arrotzez, eta geu, barregurari ezin eutsiz, korrika aldentzen ginen eskutik lotuta, haren begi-bistatik desagertu arte.

Komunistei nekez baino nekezago egiten zaion gauza batez ohartu nintzen aste zoragarri hartan: erabat txoratuta nengoela Coletterekin, eta uste baino mingarriago izango zitzaidala berari agur esatea. Baina tamalez, komunistok sekulan ez dugu aintzakotzat hartu ustez "gaineGITURARI" dagozkion aferak, indar produktiboen garapena eta giza-klaseen arteko indar-korrelazioan mundua amaituko balitz bezala. Komunistok, gauza berri asko sortu dugu munduan, ondo sortu ere, baina ez gara kapaz izan asmatzeko "maite zaitut" baino formula hoberik maitasuna adierazteko. Gainera, izen propioa duten gauza guztiei abizena ere gehitzeko gure setakeriak bultzatuak, "amodio burgesa" arbuaiatu dugu behin eta berriro, amodioa arbuaiatzeak dakartzan ondorio kaltegarriez erreparatu gabe. "Colette, maite zaitut" zatekeen biderik laburrena eta segur aski egokiena, komunista batentzat izan ezik. Eta azpiegitura gora eta gaineGITURA beheara, objektibitate eta subjektibitatearen arteko harreman dialektikoaz eragin nion buruari denbora luzean, ondorio positiboak atera gabe baina.

Eta nolabaiteko beldurra sentitu nuen une hartan, ez aldaketa soilari, baizik eta aurrerantzean ni neu ez izateari batik bat, zeren eta behin baino gehiagotan norbera izatea erosoena izan baitaiteke, norbera komunista profesionala bada ere. Idealistatzat jotzen nuen garai hartan ustez "erromantizista" den amodio-mota. Idealista eta burgesa gainera. Eta segur aski berdin esango nuke gaur egun ere, nahiz eta materialista eta proletarioa den amodio motarik bizitzeko, dastatzeko edo sumatzeko betarik ez dudan sekulan ere izan, ez lehen eta are gutxiago orain, noski.

Hala, oporrak amaitu eta Pragan burutu beharreko arte-ikerketak ere bukaera izan zuen egun batean. Eta Coletteri agur esateko momentuan ez nuen jakin zer esan, ezta ere nolako aurpegia jarri: abentura "kilikagarria" gozatu izan duen konkistatzaile hunkigaitza, bere bizitzaren amodioa betirako galdu duen amorante kontsolaezina, ala on eta gaitzaren gainean dagoen militante orojakile eta super-kontzientziatuarena.

Colettek alde egin zuenetik gauza franko suertatu ziren Pragan, eta betarik ez, beraz, mukizapia negar malkotan etengabe bustitzen aritzeko. Gauza ugari eta kontraesankor, eta bizitzaren lehenengo aldiz itzulipurdika harrapatu ninduten gertaerok. Areago esango nuke: 1968ko hilabete haietatik munduan izandako aldaketa guztiek harrapatu naute era berean.

Bizpahiru gutun idatzi zidan Colettek Parisetik. Nire konpainian ikasi eta bizi izandakoari esker gizartearen baitan ematen den zapalkuntzaz kontzientzia argi omen zuen hartua, eta horren ondorioz buru-belarri zegoen murgilduta unibertsitateko prozesu iraultzailean, geroan 68ko maiatza deiturikoa. Neu, ordea, Txekoslovakian Alexander Dubcek-en zuzendaritzapean jestatzen ari zen aldaketa politikoaren aurrean uzkur, kanpix eta mesfidati azaldu nintzen, eta ez hainbeste, segur aski, azterketa marxista sakon baten ondorioz nola neure-neurea zen zerbait, objektiboa edota subjektiboa, kanpoko errealitatearen osagarri eta aldi berean nire barnean tinkoki txertatua, suntsitzen hasia zelako beldurrak jota.

Ez nintzen izan ez, "Pragako udaberria" delakoaren aldeko, ezta ere, ordea, geroan suertatu zen inbasioarena. Hala, gertaeren zirimolan harrapatua, laster bihurtu zen oso nekeza Pragan nire papera. Ez zen sobietar armadak buruturiko inbasiotik sei hilabete pasa eta berriro nengoen Frantzian, bertoko Alderdi Komunistak hala erabakia. Gezurtero galanta izango nintzatekeen, nire "aberrira" itzuli bezain laster Coletteren atzetik korrika eta presaka joan nintzela baieztatuko banu. Onerako ala txarrerako, gure bideak ez ziren behin ere elkartu.

Zilipurdi asko eman dut ordutik hona, eta haien ondorioz aldiari behineko kolaboratzaile gisa nago lanean "Sud-Ouest" egunkariaren "Pays Basque" delako atalean, kirol eta notizia lokal ziztrinez josita berau: "Ez dakit nongo suhiltzaileek beren ospakizunari ekin diote, urtero-urtero ohi den bezala", edota "Bigarren Munduko Gerlan han edo hor erresistente izandakoen ohizko batzarrean lehendakariorde eta idazkari berriak izan dira aukeratuak". Ez da bereziki oso kazetari zorrotza izan behar asmatzeko hurrengo urtean lehendakaria eta diruzainari egokituko zaiela karguan aldaketa, ezta ere historiagile aparta jakiteko gerla bukatu ostean, ustezko erresistenteek jasotako ohore eta begiruneak okupazio naziaren garaian odolez eta lardaskeriez ordainduriko esku eta aurpegi ugari zuritzeko izan zutela balio, hala-hola ipurdi askotatik beldurrak eragindako kakalarriaren ondorio desatseginak disimulatzeke ere.

Bada, zeregin horretan aritu izan naiz duela hamar urtetik jada, munduaz gero eta aspertuago, Alderdiaren porrot eta barne-katramilez gero eta etsituago, eta maitasun bete-beteak dakarren pozetik gero eta urrutirago. Hendaiatik Kanbora, Kanbotik Angelura, Angelutik Senpereko nire etxera, eta handik Parisera atsedenaldira laburrek permititzen didaten guztietan, mundua hogei urte lehenagokoa ez bada ere, Parisen beti izango baita errazagoa iraganari lotzea, Pariseko iraganak zapo berezia du eta. Ez, ez dugu kausituko kapital handiaren zerbitzari leial eta iaioagorik 68ko maiatzean sorturiko ikasle-liderrak baino. Ez milaka langile mobilizatzen duten basa-erakunde eraginkorragorik, Leclerc, Carrefour edo Super U hipermerkatuekin aldera daitezkeenik. Ezta ere, segur aski, iraganari komunistok diogun atxikimenduaren

parekorik beste indar eta erakunde politiko eta sozialengan. Bai, Frantzia gaur egun honela egon arren, edo agian honelaxe dagoelako, inoiz baino atseginago ditut Pariserako bidaiatxoak, zeharo zentzugabeak berez, baina aldi berean ezinbestekoak, asperdura eta saminak jota ez hiltzeko.

"Les musées del'Est, un trésor à découvrir" titulupean, eta kultur albisteen artean mozarrotua, hitzaldi baten iragarpena irakurtzeko tenorea izan nuen egun batean Le Monde-n. Bertan, arte-erakustareto ospetsu baten aipamena, lauzpabost handi-mandiren izanak tartekatuak apaingarri gisa, eta notiziaren protagonista nagusia, antz guztien arabera moda-modako arte-ikerlaria bihurtua zen aspaldiko ezaguna, hau dena entzute handiko argitaletxe baten babespean. Amaitzeko, apenas inportantziarik ez bailuten, aretoaren helbidea eta ordua.

Zer egin zer ez egin iraun nuen luzaro, erabaki ezinik eta joatea ala ez joatearen aldeko eta kontrako baldintza eta ondorio guztiak ondo tajutu nahian, ohartu gabe baina erabakiaren benetako gakoa ez zela joan ala ez joan, bizik eta zergatik. Eta holakoetan ohi den bezala, azkenean argudio ezkutuenak, norbere buruari erdizka soilik aitortuak, izan ziren erabakiorrenak: nire gorpuzkera baldarra, Picassorenaren antzerakoa baina urtetako ajeez lehen baino baldartuagoa, nire janzkera trakets eta dotorezi gabea, Bokaleko portuan zenbait urtetan zamaketari eta gehiagotan han-hemenka bigarren mailako kazetari gisa zilipurdika ibilitako bati dagokion erakoa, eta batez ere bizitza eta ekimen osoa eskainia nion ideal baten suntsipena, zeinarik gabe munduko trauskil ziztrinena sentitzen nintzen, norberak dituen balio propioak hainbatetan ahantziak izatea medio aintzakotzat hartzeko batere ez ohitua. Ez, ez nintzen joan hitzaldira, bizitza osoan komunista besterik ez izandako batek ezer gutxi baitu gaur egun inori eskaintzekorik, eta besterik gabe etxera bueltatu nintzen, Colettek, hitzaldian bertan ez bazen ere bai ostean lagunarteko tertulian bederen, Ekialdean buruturiko egonaldian irizpide eta datu informatiboez gain beste zerbait jaso zuela gogoratuko zuen esperantzan.